



Irudia:
Kristina Fernandez

Ibai Ayerza

1990ean jaioa. Historialaria da ikasketaz eta lehen urtea du idazle-eskolan.

NOR DA

Ibai Ayerza

Begien espaloiko putzua

Seberiano deritzon gizaseme batek berrogeita hama-sei urte daramatza soinean, berak *bulego* deritzon postutxoan. *Bulegoa* gainerako ONCE postuen antzekoa litzateke Seberianok aurkitu bezainbeste kolorez margotu izan ez balu. Horretaz gain, eskobari lotuta dagoen ikurrin handi bat atxiki berri dio sabaiari. Berak betidanik miretsi izan ditu antzinako batailetan bandera zeramaten soldaduak, hainbat aldiz irudikatu ditu soldaduak banderaz etsaia astintzen. Ez du deus ulertzen banderez ez eta horien atzean ezkutatzaren diren ideiez ere, baina aspaldi honetan herrian modan jarri da ikurrinak zintzilikatzea eta bera ez da gutxiago izango. Bandera eskoban jarri eta hurrengo egunean alkatea agertu zitzaion, eta alkateak hitz egin orduko honakoa botatzen zion Seberianok: *no soy ni socialista ni comunista, soy Seberiano el oficinista*. Badaezpada.

Aspaldi, burmuineko arazo bat zela-eta minusbaliotasun-agiria eman zioten, burmuina apur bat atzeratuta baitu. Bihotza bezain aurreratua. Izan ere, hain da eskuzabala Seberiano, hain du dotore idazten. Kupoi bakoitzarekin berak idatzitako soneto bat erregalatzen die bezeroei. Hartara, herritarrek bi motatako bezero bilakatzen ditu: kupozaleak eta sonetozaleak. Lehenengok zoria dute gurtzen, bigarrenek Seberianoren prosa. Horietariko bat da Agustina zerbitzaria. Agustinak Seberianoren *bulego* alboko tabernan lan egiten du, eta Seberiano miresteaz gain, zaindu egiten du. Horregatik, Seberianoren une txarretan, Agustinari putzuak egiten zaizkio begien espaloian. Gainera ez du Seberiano metro koadro horretan sartuta ikusi nahi izaten, *har ezazu aire pixka bat*. Seberianok, *nipadios*.

Eguzkia, inprimagailu baten gisara kolore bizi-bizirik inprimatzen ari den bitartean, Seberiano berezkoa duen ibileraz ailegatu da gaur *bulegora*. Pertsianak altxatu, kristalei eskupainuaz eragin eta aulkian jesarri da. Irratia piztu eta al bait ozenen jarri du bolumena. Irratia leihatilaren aurrean paratu eta abiarazitako eszena noiz ikusiko zain geratu da. Hiru pausora dauden bankuko eskaleak iratzarriko dituela jakitun. Handik abesti erdira esnatu berriaren aurpegiz igaro dira eskaleak, *egun on, Seberiano*. Eta udaltzainak atzetik bi abesti eta erdiren ondoren, *egun on* ere esan gabe.

Seberianok ez ditu udaltzain gehienak atsegin, horren

dira harrotzen uniformearekin. Hala ere, eurei zor die bere berrikuntzarik eraginkorrenaren ideia. Leihatilaren azpian, egurrak ia lurra ukitzen duen lekuan, zulotxo bat dago. Zulotxotik makila labur bat ateratzen da. Makilak biktimari estropezu eginarazi, biktimak grabitateak oraindik funtzionatzen duela konprobatu eta esplikazio bila atzera begiratzen du. Hori gutxi ez eta euria ari duenetan putzua osatzen da biktima apasionatuentzako, orain bezala.

Baina gaur putzua apasionatu da euri gehiegi edanaz batera. Seberianok ez du bezerorik izango putzua hor datzan bitartean. Horregatik, berehalakoan atea ireki eta putzuan saltoka hasi da. Ehun eta hirurogeita hamazazpi saltoren ondoren putzua argaldu du, euriak, burlati, gelditzeko asmorik ez duen bitartean. Ehun eta hirurogeita hemezortzigarren saltoan erabaki du ez duela gehiago salto egingo eta arineketan sartu da *bulegora*. Plan bat behar du, bere asmakizun idealetako bat. *Bulegoa* ezin dezake mugitu lurrera itsatsita dagoelako. Olana modukorik ere ezin dezake zabaldu ez duelako, agian udaltzainei eska diezaike laguntza. Nahiago ez. Azkenean, euritakoaren adarretan kupoiak eskegi eta sonetoak patrikan sartu ditu. Hor abiatu da herrian zehar euritakoaren azpiko *bulego* ibiltarian.

Jendeari grazia egin omen dio Seberianoren burutazioak, eta kupoiak eta sonetoak eta irribarreak saldu ditu. Agustina biharamunean ordu erdi lehenago ailegatu da tabernara. Lorezaina kafesnerik goxoenaz erosi eta Seberianoren *bulego* aurrean putzua osarazi egin dio. Gero, Seberiano iritsi da eta errutinak agintzen duena egin du, alegia, eskupainua pasatu, irratia bolumena handiagotu, eta bankuko eskaleak iratzarri. Lorezainak ez du Agustinarekin asmoen berri, horregatik eta Seberianoren erreakzioaren beldur delako, herriko beste puntara joan da. Agustina, ordea, tabernako leihotik begira dago colacao bero bat prestatzen. Seberianok ez du abesti askorik behar izan berriz ere putzua osatu dela ikusteko. Gora begiratu eta ateri dagoela egiaztatu du. Hala ere, euritakoak prestatu eta hor abiatu da sonetoak, kupoiak eta irribarreak saltzera. Agustina, kontent. Egiatan Seberianok badaki Agustinarekin asmoen kausaz izan dela putzua, baina putzu hori desagerrarazi ezinda beste putzu bat desagerrarazi du: Agustinarekin begien espaloiko putzua.